



# Langai

1989ko OTSAILA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 4

## Batasun Nazionala Ponentzia

## PENTSIO FONDOAK

Zbkia



TXT 10005

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

## PENTSIONEN FONDOA

Erabateko eraldaketak eragitearren, botereak usuen darabilen katramila, alde zurretik zurrumurruek hedatzea izaten da, bere egitasmoa errotuz joan dadin eta kalteratuak ikara handirik gabe onar dezaten itzuliezinezko bailitzan, "zerutierra" edo, zer egin ezean uzten gaituztelarik.

Oraingoan gure Aseguru Soziala ziur, kaskar eta gaizki jestionatuari dagokio; eta A.S. gaixoaren sendabiderako, oker deituriko sozialista gobernuak, Pentsioen Fondoak deritzonaz aurre egingo dio.

### Aseguru Soziala eta Insegurtasun ekonomikoa

A.S. ez da gizarte kapitalistak onean emandako ezer, ezta bere berezko funtzionamendutik sortua. Langileriaren borroka luze eta latzaren ondorioa (oraindik hobetu beharrekoa) baizik, beraren segurtasun ekonomikoa etengabe mehatxupean izatean, oinarritzat jotzen du "Segurtasun Ekonomiko"rako A.S.k beregain hartzearena, hain zuzen.

Industri aroaren garapenak gehi langileriaren lorpenak, mende hasieran sinestezinak ziratekeen emaitzetara eraman gaituzte, hau da, biztanlearen gehiengoak segurtasun ekonomikoaren tajuzko kontzientzia izatera maila guztietan (langabezia, elbarritasuna, erretiroa...)

70.eko hamarkadan mundu mailan ekonomian emandako "aldaketa" nabariak "ongizate egoera" bera ere kolokan jarri du; kapitala bere irabazpen tasa handituz joan denean, langilegoari plusbaliaren atalen bat zergatzen eman beharra zeritzon, funtsean lortzen zituen ondorio ideologikoengatik (meneratzaileak eta itsaskorrak). Baina, gerrosteko ekoizpen ereduak porrot egindakoan eta kapitalaren beraren iraupena mehatxupean, bere baitango krisian itoa, zerga kentzen da.

Egun, "ongizate egoera" krisialdian dago: gastu publikoa, langileriak geure klase interesetarantz bideratuz joan garena, gero eta murriztago gertatzen ari zaigu.

Haren murriztapena, meneratzaile blokearekin hartutako konpromisoak (finantziabide-entitateen osasuneratzea, armagintza negozioaren handitzea, subentzioak eta ekoizpen-moldearen berregituraketentzako laguntzak, etab.) Giza gastuen barne baino ezin egin daiteke eta estrategia berean egokitua, orain arte publiko izan diren ekite guztien pribatizazioaren aldeko jardunak jasaten ari gara: Sanidadea, Hezkuntza, Garraioa, etab...

Botere publikoak kapitalaren menpean, finantzia sektorearen zuzendaritzapean (Bankak eta Aseguru etxeak izandako etekin gorakadaz ohartzea besterik ez dugu), estruktural mailako defizitaren mehatxupean gero iluna argudiatuz eta denori, pentsiodunen kopuruaren bilakaera, biztanlegoaren piramidea, bizitzaren luzatzea, lanpostuen jetsiera gehituz, soluziobidetzat aurkezten dizkigute Pentsio eta Mutuak garatzeko eta hedatzeko sistema, Pentsioen Fondoak, alegia.

Honetarako, arestian aipatu dugunez, prestatzen digute bidea; 1.984.enean, Joaquín Almunia, Lan Ministrariak, A.S. porrot eginda zegoela zioskun. 1.985.enean langileriak aurre egin behar izan genion A.S.aren Erreforma legeari, etorkizuneko pentsionisten soldaten murriztea ekarri zuena, besteak beste, erregulatzeko oinarria aldatu bait zuen, pagatutako azken 8 urteak oinarritzat hartzean eta ez azken urte 2ak ordurarte bezala. Pentsio bakoitzeko %8, %10a galduaz.

Berdenboran pentsiodun eskubidea izateko urteen hainbatekoa 10etik 15era igo zuten, pentsiodunen kopurua jeitsiz.

1.988.eko Uztailean, Jose Borrellek, Estaduko Finantz Idazkariak, A.S.eko ordainketa sisteman aldaketak proposatu zituen.

Bere proposamenean ordainketa bi eratan egitea zen, alde batetik Sanidadea eta bestetik pentsioak. Sanidadea estatuaren kontura eta pentsioak norberak bereak.

Itzelezko urratsa litzateke berau, Gobernuak pentsioen ordainketarako dituen planetan, gaur egungo pentsiodunen eta etorkizuneko enrekurtsoak arrisku larrian geratuz.

Estaduko aurrekontuetan (1.989.ekoetan) partzialki baino ez badira ere ideia hauek kontutan izan dituzte.

#### Sanidadearen Unibersalitze : Ezekitatezko kostuaren banaketa

1.989.enerako Insaludeko aurrekontuak osasun politikaren bi errealdade hartzen du: Osasun sistema estatalaren gauzatzea eta biztanlegoari osasun zerbitzuetarako erabateko eskubidea. Sanidadearen aurrekontua, 1.574.000 miloi honela osatzen da:

Estaduk: %70,1a (Estaduko aurrekontutik)  
Aseguru Sozialetik %27,2a (Langile kuota eta patronalak?)  
Zerbitzuen kobraketa %2a  
Gainontzekoa %0,7a

Biztanlegoarentzat osasun zerbitzuen lorpena berriro ere langileriaren zamarako izango da. Estalki gisan erabilia izango dena INSSen gizentzeko batzuk, hots, pentsioetan, eta horrela

pribatizazioruntzko bideari ekiteko.

Zergatik diogu langileriaren zamarako izango dela?

Estaduk aurrekontuak zergen ordainez osatzen dira. Estaduaren aportazioaz bermatzen dira (irregulartasun dexentez).

Errenta moeta guztietarako aportazioez, lan errentak, kapital errentak... Beraz, Estaduak %100a aurrekontuetan beregain hartu beharko luke bermatzearren errenta guztien banaketa "berdingoa".

Proposatutako finantziazioaz, lan errentak solidarioago jokatzen behartuak daude, alde bitik ordaindu behar bait dute:

1.- Estatuaren aurrekontura, IRPF eta B.E.Z.pean (zerga honen lan errentak kargatzen ditu sano, gehien bat kontsumorako zuzenduak, eta BEZ kontsumatsailengan zuzen zuzenean kargatuz.

2.- Aseguru Sozialera, Aseguru Sozialeak bere egitura finantziatzeaz gain, Insaluderi aurrekontuaren % 27,2a eman behar dio eta, langilego eta patronalaren kuotez.

Eta A.S.kideak osasun zerbitzuetarako berezko eskubidea bazuten, beraiek sistemari pagatuz, ezin ulertu dugu Sanidadearen kostua Estaduak ez hartzea beregain, lan errentak ez dira geratuko kanpo mantentutik, halere lan errentak gehiago ez kargatzeko irtenbide bakarra izango litzateke.

### Datorkigun Aseguru Soziala

Pentsio eta Fondoaren araudiaren legea onarturik, 1.984.ean hasitako lasterketaren bizialdira iritsiko gara. A.S.aren pribatizazioarako lasterketara, hain zuzen.

Aseguru etxe inportanteak hasia dute beren dema, jakintsu eta atzerriko etxeak kontratatuz. A.S.aren ezintasunaz ohizko leloak erabiliko dituzte, jaiotze tasaren beherakada, bizitza luzatzearen probabilitatearen gorakada, egungo espainiar biztanlegoaren demografi tasa, A.S.aren finantziatzeko izango duen ezintasuna, langile bakoitzak beste bi mantendu behar izango duela eta...

Honela "mezua" "onduz" joango da, batez ere 35-40 urtekoen artean Pentsioen Fondoan aurrez dezaten.

Hasierako publizitate kanpainarako 6.000 miloi dauzkate, Aseguru etxe bateko zuzendaritzako baten esanetan, interes handiak eta hnadiko jendeak dabilela guzti honetan pentsarazten digu, eta halantxe da, hurrengo bost urteren buruan 2 biloi, bai bez idatzia saltsan leudeke, milioi t'erdi familia Fondo edo Planen bazkide, enpresen % 20an lan planak; hitz batean Aseguru etxeetarako eta Finantzi elkarteetarako "amama", sekulako dirutzaz baliatuko

bait dira, betiere, behartsuen eta larrien bizi direnen kontura larrua bete bete egiteko.

Pentsioen Fondoan Politika nola finantziatuko da?

A.S.aren finantziatze alternatiboa gorpuzteko, gaur egun laketzen den egoera aztertu, eta noruntzko noraezea eman nahi dioten kontutan hartu beharrekoak dira.

PSOeren nahiaz ez dugu zalantzarik, akabatzea ekitatiboagoa izan daitekeen kontribuzio sistemarekin.

A.S.aren arduradunek ziotenez "A.S.aren hobakuntza eta arrazionalizazioarako erizpideak" txostenean, 1.984.ean, egungo A.S.aren hobakuntzaren eraginkortasunerako hiru mailetan oinarritutako sistemaz ziharduten:

Lehenengo maila, publikoa zatekeen, mundu guztiarentzat, pentsiorako eskubidea ez zuketenek barne, norberak emandakoaren arabera jasoko zuketena. Estatuaren aurrekontuetatik finantziaturik eta superbizipen soilerako baino ez zukeen balio. Oinarritzko pentsioa baino ez zena izango, egungo benefizientzia pentsioen antzeko zerbait, gehituz zertxobait balioa.

Txosten beronetan aipatutako lehen mailako pentsio hau zerga ordaintzean minimotzak joko zatekeen; honela, oinarritzko errenta jasoko zuketenei zerga kitapena bermatuz.

Bigarren maila ere publikoa zatekeen, baina, bere izaera profesionala eta kontributiboa, pentsiorako eskubidea sortu zukeena, denbora eta kotizazio oinarrien arabera, kotizazio oinarriak azpimarkatuz, topeak ezarri. Pentsio hauek kotizazio parekideak ziratekeen. Bigarren maila honetara iristeko baldintzak egungoen parekoak ziratekeen, baina parekidetasun maila areagotuz.

Hirugarren maila norberaren borondatez hautatzeko zatekeen, eta elkarte pribatuen esku, pentsioen fondoetan oinarrituz. Errenta maila altukoentzat egokitua, gehiago aurrezko bait dezakete jubilazio garaian bizi mailari darraielarik. Diru honen jestiogintza 25-30 urtetan izan liteke, konpainia pribatuen onerako, aterramenduak kontutan baditugu, behinik behin. Egungo pentsiorik haundienak 187.950 pztakoa da, eta diru kantitate honekin ezin zihurta dezakete bere bizi maila halako jendilajeak. Gutxi da askozaz ere gehiago irabazten bait dute. Horrela uler daiteke "jaunskilb" hauen interesa Fondo eta Planen pentsioak aurrera ateratzearren.

Pentsioen Fondoak eta Planak, Erretiro planak. Bi kontzeptu desberdin. Oinarritzko ideiak.

Pentsio planen eta erretiro planen arteko desberdintasunak

erakusten saiatuko gara, zeharo desberdin diren 2 kontzeptu, publikitate bidez nahasian agertarazi nahi izan badigute ere.

1. Erretiro planak. 1.985. urtea jo dezakegu sorreratzat, eta aurrezteko emaitza bailitzan, sistemaren ereduak jarraikiz, filosofiatzat aldikako aurreztearen konpromesua hartzearen funtsapean datza, betiere finantziabide elkargo baten kontrolpean, saldoaren berezitasuna izaki.

2. Pentsioen Fondo eta Planak, urte batzuetan emandako eztabaiden ondorengo araudia daukate (88-30-9).

1.987.eko 8 legeak, ekainaren 8koak, Pentsio Plana zehazten du: aurrezte kontrako bidez, epe luzera pentsioak jasotzeko eskubidez.

Pentsio plan hauek Pentsioen Fondoak deritzenekin bat egiten dute halabearrez, eta bi entitate hauek dira etekina eta gestiogintzaz arduratuko direnak. Beraz, Pentsio Fondoak hainbat pentsio plan gestiona lezake.

Pentsio Fondoan ahalbide gaitasunak, bai inbertitzeko zein gestiogintzarako, Pentsio planak sorturikoaz, horrela, araudiak artikulatu gehienak berari dagozkiola uler daiteke, legalki baldintzatuz.

#### PENTSIO PLANEN ERAK. (Nortzuek osatzen dituztenen arabera)

a) Lan sistema: empresa, elkargo, taldeak promotore lirateke, beren langileak partaide izango liratekeelarik.

b) Talde sistema: sindikatu, elkarte... promotoreak partaide izanik.

c) Banakako sistema: finantziabide entitateak promotore, partaide edozein pertsona izanez.

#### PENTSIO PLANEN OINARRIZKO PRINTZIBIOAK ETA EZAUGARRIAK (legearen arabera).

- Bazterkeriarik ez: lan sisteman bazterketarik ez izatea ulertzen da: promotorak erabilitako pertsonen osotasunak 2 urteko aintzina tasunaz planean sartuta egotea edo egoteko moduko baldintzetan izatea.

- Kapitalizazioa: Norberak norbere aportazioaren arabera jasoko du.

- Promotorearen aportazioen atzerazintasuna.

- Aportazioen araberako eskubideen ezarpena partehartzailei.

- Plan guztien derrigorrezko bateratzea Pentsio Fondo batean.

- Sortuko den kontrol Batzordeagatik Pentsio Planaren azterketa.

- Aportazioen mugaketa: Pertsona baten edota familia baten aportazioerik handiena Pentsio Planetara 750.000 pztakoa izango da.

## PENTISIO PLANEN APORTAZIO ETA ZERBITZUAK

Pentsio plan bakoitzak bere aportazio eta zerbitzu izango ditu, Planaren eran eta sistemaren arabera, eta Planean barne kopuruaren arabera.

### Aportazioak

- Zergak edo aportazioak promotoreak eta partehartzaileak eragingo dituzte, Pentsio Plan bakoitzak ezartzen duen eran eta kasuan.
- Ez dira onartuko aportazio edo zergarik promotora edo partehartzaile direngandik at.
- Pentsio planak, berak aportazioen etena edo aldaketa izatekotan zirkunstantzi edo arrazoiak aldezturik ezarrita egongo dira.

### Zerbitzuak

- Eskubide ekonomikoa onartuko zaie Pentsio Planetako eskubidedunei, Planean aldezturik iragarritako zerbait gertatuko balitz. Horralakoak litezke:
  - \* Erretiroa, edo antzekorik. Legeak dionez ezin iritsi ezkerreko, bere pareko zerbitzua 60 urte betetzean soilik jaso ahal izango da.
  - \* Lan elbarritasun osoa eta iraunkorra norberaren lanerako, ala elbarritasun osoa eta iraunkorra lanerako.
  - \* Alarguntza, umezurtzatasuna... eskubidedunei emana, partehartzailearen heriotza suertaturik.

Plan bakoitzak aurreikusitako behar du zelan emango diren zerbitzuak, honetara izan daitezke:

- Gertakizuna ematean diru kopuru batez eta behingoan kobratuko dena.
- Errenta modura, urte batzuetan kobratzekoa (aldirako errenta), edo kobratzen duena hil artekoa (bizirako errenta).
- Kapital-errenta erara, gertakaria ematen denean diru kopuruaren bat kobratzen da eta errenta ere bai.

Plan bakoitzak aditzera eman behar du zerbitzuak errebalorizatzen direnentz, eta errebalorizazio modua.

## PENTSIO PLANETAN PARTEHARTZAILEEN FISKAL ARAUA

Promotoreen zerga orok Pentsio planari (enpresak, etab...) partehartzaile baten mesederako (langilea), partehartzaile horren lan etekintzat hartuko dela dio legeak.

Pentsio Planen partehartzaileak Errenta zergatik oinarri ezaugarria kitatu ahal izango dute, beren aportazioak eta dagokionean, promotorearen zergak lan etekinetik ezarriak. Kitapen honen topeztat joko da:

- Lan etekinaren % 15aren gehiketa, entpresa, profesional edo artistiko ekintzak egingo balira.
- Familiko 500.000 pzta. urtero (senaremazteak eta 18 urte beherako semealabak).

Pentsio Planean soberan pagaturikoa oinarri ezarrigarritik kitatua ezin izan dena, Errenta zergatik % 15ean kitatuko da (goia jota oinarri ezarrigarriaren % 30a baino ezin kitatuko da) eta inoiz ere kitatutakoa ezingo da izan 750.000 pztatik gorakoa.

Bestalde, Pentsio Planetako eskubidedunak jasotako zerbitzuak I.R.P.F. delakoaren oinarri ezarrigarrian sartuko dira lan etekin balira bezala.

Orain artekoa, Pentsio Fondo eta Planen lege araudiaren barne esana, balorapenik egin ez dugularik.

Baina, azpimarratu nahi genituzke hain aipatuak diren "abantaila fiskalak", Pentsio Planen zuriketa egin nahiean eta publizitatearen laguntzaz engainagarri suerta litezkeenak. Azkenengo puntuan agertu arren, adibide 2 jarri nahi dugu denok uler dezagun.

Entpresa baten Pentsio Plana sortzen da, bertan enpresarioak langileen soldata gordinaren % 5a ematen du eta langileak % 10a. Langileak gainontzeko % 10a eman dezake.

Sar ditzagun kasurako 2 langile, batak soldata gordina 1.600.000 pztakoa eta besteak 2.500.000 pztakoa.

Bakoitzaren mozkin fiskalak aztertuko ditugu segiduan.

KONTZEPTUA	LANGILE A	LANGILE B
* Lan etekin gordina	1.600.000	2.500.000
* Enpresarial, profesional artistiko ekintzen etekina	-----	(teknikoa da eta bere profesioan dihardu lantegitik landa) 1.000.000
<b>ETEKINEN TOTALA</b>	<b><u>1.600.000</u></b>	<b><u>3.500.000</u></b>
* Promotorearen aportazioa P. planera (%5a)	80.000	125.000
* Partehartzailearen aportazioa: oinarritzkoa (%10a)	160.000	250.000
gainontzekoa (%10a)	-----	250.000
<b>APORTAZIO TOTALA</b>	<b><u>240.000</u></b>	<b><u>625.000</u></b>
<b>PENSIO PLANEKIN I.R.P.F.ren AITORPENA</b>		
* Lan gordinaren etekinak	1.600.000	2.500.000
* Kitapenak	-128.000	-200.000
* Promotorearen aportazioa Lan etekinak	+80.000	+125.000
Profesional ekintzen etekina	<u>1.552.000</u>	<u>2.425.000</u>
<b>ETEKINEN TOTALA</b>	<b>1.552.000</b>	<b>3.325.000</b>
Pentsio planen aportazio kitapena Etekinen totalaren %15a (Kopurua 500.000 pzta. baino gutxiagokoa izan behar da)	-232.800	-498.750
<b>ONARRI EZARRIGARRI TOTALA</b>	<b><u>1.319.200</u></b>	<b><u>2.826.250</u></b>
Zerga osoaren kuota (1.988.eko aitorpenerako)	182.999	602.875
Planean gehiordainaren kitapena	(240.000 - 232.800) (%15a)	(625.000 - 498.750) (%15a)
	-1.080	-18.938
<b>1. KUOTA</b>	<b><u>181.919</u></b>	<b><u>583.937</u></b>
<b>PENSIO PLANIK GABE I.R.P.F. AITORPENA</b>		
* Lan gordinaren etekinak	1.600.000	2.500.000
- Gastu kitagarriak	-128.000	-200.000
* Beste ekintza batzuetan etekinak	-----	+900.000
<b>ETEKINEN TOTALA</b>	<b><u>1.472.000</u></b>	<b><u>3.200.000</u></b>
<b>ONARRI EZARGARRI TOTALA</b>	<b><u>1.472.000</u></b>	<b><u>3.200.000</u></b>
<b>2. ZERGAREN KUOTA OSOA</b>	<b><u>222.720</u></b>	<b><u>719.000</u></b>
<b>FISKAL AURRERAPENA (2.a - 1.a)</b>	<b>40.801</b>	<b>135.063</b>

Argi geratzen da erdi-altu diren errentak zergen ihesi dabiltzala, Pentsio planetan traturik onena jasotzen dutenak, "errenta soberakina" izateaz gain desgrabazio mailarik altuenak ere bai. Esan beharra dago, Estaduaren gastuak urtero goraka doazela eta zergak direla bere mantenua, beraz, batzuek ez dutena pagatzen besteok pagatu behar izana izaten dugu, zergen igoeraz gastu iraunkorrak betetzen bait dituzte.

Orain artean adierazitakoaz, Erretiro Plana eta Pentsio Plana zer diren antzeman dezakegula uste dugu; ezberdintasun nabarmenenak hurrengo eskema honetan argiro azpimarratzen direlarik.

KONTZEPTUA	APORTAZIO MUGA	DESGRABAZIO FISKALA	ZERBITZUA	EZARPENAREN BERRESKURAKETA
Pentsio Planak	750.000 pzta. urtean familiako.	<p>* Totala oinarri ezarrigarritik muga kontutan harturik kentzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 500.000 pzta.</li> <li>- Lan etekinaren %15a.</li> </ul> <p>* Aurreko apartadoan ezdesgrabatu aportazioa ematen bada, kuota osoaren %15a desgrabatzen da.</p>	Ezin ziarra daiteke aportazioa.	Erretiro adinera heltzean errenta edo kapital eran zerbitzua lor daiteke.
Jubilazio	Ez dauka	Kuota osorik inbertsioaren %10a desgraba daiteke (topea oinarri ezagarraren %30a).	Aseguru batekin tartekatuz, berma daiteke zerbitzua.	Berehalaxe

## PENTISIO PLANAREN EMATZA

Mendebaldeko testuinguru ekonomikoan merkata eta Finantziabide interesen jabegopean, Bankaren hazkundeak prebizio guztiak hautsi dituzte, eta langileriaren aurrerapenen interesak azkenaldian jasandako beherapenak, nornahik zalantzetan jar dezake "erretiro paradisu" itxuraz saldu nahi digutena.

Pentsio Planarekin zer kobratuko dugu?


Lehenbizi pentsioduna izango denaren adina aztertu beharra dago helburua bezero "gazteak" bait dira, erretiroa urrun daukatenak, eta bigarrenaz Planari eginiko aportazioa aztertu behar da.

Bi aukera hauek Planaren kapitalizazio interes moietaren teknika aukerei lotuta, eta egunerokotzearen interes teknikoarena, gure "urrezko pentsioa" emango digute.

Ondoren, adibide gisan, aurkezten da Pentsio Plan bateko partaideengandik jasotako zerbitzuak.

Adibidean aportaziotzat 1.000 pzt. hartzen da, honek esan gura du jasotakoa 1.988.eko pztetan izango dela.

Planaren errentagarritasuna %8an jarri da eta Planaren gaurkotzearen interes tekniko urteko %6an, heriotze taulak 70.enean P.E.M. eta P.E.P. delakoak erabilitakoak dira.



## PENTSIONEN PLANAREN PRESTAMENAK

65 urterekin eskubide gauzatua

Partaidearen egungo adina	Pagatutako hilabeteak	Kapitala orotara	Bizirako urteko pentsioa	Hileroko pensioa bizirako (14 hile)
25	480	3.514.280	387.575.	27.684
30	420	2.309.168	254.669	18.190
35	360	1.500.000	165.462	11.819
40	300	957.366	105.366	7.541
45	240	592.947	65.394	4.671
50	180	348.345	38.418	2.744
55	120	184.166	20.311	1.451
60	60	73.967	8.157	583

1988.eko pezetak

Aurreko taulatik partaide batek Planean atera lezakeena atera daiteke, noiz pagatzen hasia denaren arabera eta pagatutakoaren arabera. Hilero kobratzea aukeratzen duenak bizi deino kobratuko du, betiere arriskua izanik, metaturiko kapitala jan orduko hil bait daiteke.

GAINERA FUNTSEZKO DEN ZERBAIT EZ DUGU AHAZTU BEHAR, HAU DA, JASOTZEN DUGUN ERRENTAK ERRENTA ZERGAN LAN ERRENTA MODURA KITATUKO DA, DIRU KOPURU HAUETATIK ZERGETATIK KITATUKO DA, ALEGIA.

Kontutan hartu beharrekoa ere inflazioaren errolak, monetaren balioa gutxitzen duena, eta pensioak 1.988.eko pztetan kalkulatutak izan direla.

Demagun, inflazioa hurrengo urteetan %4an iraunkorki mantenduko dela, egungo 1.000 pztaren balioa honako honetan bihurtuko litzateke.

Egungo 1.000 pztaren balioa.

Egungo balioa	5 urte	10 urte	15 urte	20 urte	25 urte	30 urte	35 urte	40 urte
1.000	823	678	558	463	378	311	256	210

\* Inflazio iraunkorki %4an

Horrela inflazioa %4an iraunkorki mantenduko litzatekeela dadutzat harturik honeko hauek izango lirateke pentsioen balioak.

Partaidearen egungo adina	Kapitala orotara	Bizirako urteko pentsioa	Bizirako hileko pentsioa
25	738.000	81.391	5.814
30	591.147	65.195	4.657
35	466.592	51.459	3.676
40	361.884	39.911	2.851
45	274.534	30.277	2.163
50	194.376	21.437	1.531
55	124.864	13.771	984
60	60.875	6.713	479

## ESTADUA ETA ERRENTAREN BANAKETAN DUEN ERROLA

Garbi izanik ekonomi egitura berriak handituz joan direla, klase sozial bat, eta bere jabego bakarra lan indarra dena, eta berau ere arriskupean laketzen da (langabezia, elbarritasuna..) bere ekonomia zuzenean mehatxatzen dutenak, sektore publikoari esijitu beharko geniokeen betebeharra, botere esparrukoa, benetazko sozializazioa, honelako arriskuak gerta ez daitezen, errenta banaketa egoki batez.

Baina banaketak ez badakar klase erdi-altuen errenten bideratzea behe klaserantz (hau da, arriskuaren mehatxupean daudenengana: langabetua, erretiratuak...) zein da banaketaren zentzua?

"Brocheir"ren esanetan, "Errentaren banaketaren ezaugarria ezberdintasunean datza". Talde txiki baten esku dago errentaren metaketa eta errentaren zatirik txikiena talde haundi batean sakabanatzen da, alegia.

Estaduaren esku hartze eta Erakunde Publikoena zilegi litzateke, helburutzat talde batekoa besterako bideratzean emango balitz.

Hemen aurremandako bi gaiekin egiten dugu topo: A.S.k finantziabide neutralidadea mantendu behar du, hots, zergadunak jasotzen du pagatzen duen heinean? A.S. berbanaketarako tresna eta bidea izan behar badu, zein da transferentzien zentzua?

Estaduaren zakuraketa fiskalak eta parafiskalak biztanlegoaren salerosketa boterea zuzenean jaisten du, pagu hauek errentetatik kitzatzen bait dira, baina indirektoki ere jaisten dute. Horrela biztanlegoak ez ditu pagatzen soilik zerga zuzenak (I.R.P.F., jabegoa), BEZ, elkarteen zergak eta abarrak baizik, azken ondorioa kontsumitzailea kaltetua izatea izanik. Soldata bajuetan zamatzuz, dagokien errenta osoa kontsumatuz.

Bestalde A.S.ri enpresariak eginiko pagua soldaten atala izaten da. Kuota honi muga ezartzeak, kategorien arabera, A.S.ean soldata handiak, kuota topea gairatzen dutenak, zama txikiagoa izatea posibilitatzen du.

(Praxisean kuota taula hainbatek gairatzen du)

Azkenik, errenta altudun mailetan I.R.P.F. delakoak ez du behar zukeen progresibitatea.

Haziendaren Finantziabide iturburuaren ikerketak (Hego Euskadin I.R.P.F. delakoagatik batutakoa %80a baino gehiago errenta bajuetan

tik izan da, 2.000.000 pzt. beherakoengandik) honek erakusten du sistema fiskala eta batzekoa ez dela banatzailea, ez zuzenkorra.

Errenta handiak proportzionalki gutxiago ordaintzen dute zergatan. Amaituz, Estaduak mantendu izan duen filosofi ekonomikoa, ekonomia eraginkortasuna kolokan ez jartzea izan da, sozial berdintasuna bilatu beharrean; inbertsio garapena ez larritu, zinez aurrerakoi zerga sistemaruntz urratsak eman beharrean.

Sozial kontraesanak handitzen segitzearen filosofia, publiko sektoretik entresara transferentziak behin eta berriro emanez, hauek aurrera jo dezaten, ez mantentzen soilik ekoizpena, handitzen baizik, eta holantxe ere kapitalaren metaketa handituz. Batez ere entresia handiak azken urteotan urtez urte gero eta etekin handiagoak egin dituztela nabaria da, bitartean langabetu kopurua goraka doa, eta soldatak presio fiskal itzela pairatzen dute.

Horrela A.S.ren gastuak ezeikoizpenezkoak jotzen dira, inbertsiorako erabilgarri gerta daitezkeen fondoak bailiran. Oraindik ere ekoizpen sistematik kanpokotzak jotzen da A.S.

Sarri ahaztu egiten da A.S.ren errola ekoizpen indarraren garapenean eta aldaketan motorra dena. Beharrezko da A.S. ekoizpen sistemaren barnean berregokitu eta ez kanpora dagoen zama bezala hartu.

Estaduari eta Gobernu inkompetenteki galdera bat besterik ez. Pentsio Fondoei eurek pagatuko diete 3.000.000 langabetu luzei, ezin izango dutenak, eta pagu hori ezin izango duten hainbat errentei.

11

Gobernuari gogorazi behar diogu A.S.ren aurrekontura igorritakoa ("zama astuna" kapitalari emateko irentsi arazi nahi digutena) ekonomi esparrutik ez dira desagertzen, eskariaren eustean oso inportantea izanik eta beraz, ekonomi jardunean, lanpostuaren txartzea ekidinez.

A.S.ren babestea ez da sistemaren errekurtsioak atera esku pribatuei emateko, langabeziaren akabapenerako erabili errekurtsioak, bai ordea. Ez gaitzaten nahas, langabezia bait da oso garesti dagoena.

Hazkunde Ekonomikoak, errenten banaketa errealaz, sal-erosketa balioa indartzen du, lana eta A.S.ren diru iturriaren gehitzea bermatuko luke.

A.S.ren finantziaketaren zama lan errenten gain datzala, kontutan harturik, entresari errentak eta kapitala kanpoan uzten dituela finantziabide ekitatiboa errenta moeta guztien artean edozein erreformak bilatu beharko luke.

Hau soilik bidera daiteke erreforma fiskal baten abiapuntutik, zerga denontzat ekitatiboa izanik, eta Estaduak A.S.ren aurrekontua ren %100a finantziatuz.

### Alternatibaruntz


A.S. deritzon txolopote honi LAB moduan ezin diogu alternatibarik eman, baina bai planteia ditzakegu gertakari objetiboak aztertu ahal ditugunak, lehenbizi geuk eta gero gizarteari bere osotasunean azter eraziz.

Gobernu Autonomoak, bai Nafarroakoak, bai C.A.V. delakoak ez dute kompetentziarik A.S.ren kuotak, langile eta enpresarioak pagaturikoak, jasotzeko. Berau datu zehatza da.

Vascongado Gobernuak A.S.ren kompetentziak hartu zituenean (INSALUD) eta (INSERSO) erakutsi zuen arrakastaldia hutsala izan zen, eta esan behar diogu Euskal gizarteari, berriro ere engainatu nahi izan gaituztela, C.A.V.tik irtendako dirua ezin buelta daitekeela inola (Hego Euskadin A.S.ren kuotak 250.000 miloi pztara iristen dira, Hazienda autonomo biak batzen dutenaren %60a) funtsean egungo kutxa bakarreko sistemarekin ezin apurtu bait dute, hitzarmenak direla medio, honela A.S. autonomiek ezin gestiona dezakete, posibilitate guztiak ondo itxita eta lotuta bait dauzkate.

A.S.ren kompetentziarik gabe sektore kalteetuenei laguntzeko moduko errenta banaketa politikarik ezin daiteke planteiatu, V.G.k, N.G.F.k bezalaxe PSOEk emandako hondarren administrari bihurtuko dira, eta ez egiatzko A.S.ren jostore C.A.V.n eta Nafarroan.

Esandakoak egungo Estadu - Hego Euskadi markoaren birplanteaketa ra garamatza, aldaketa beharra ezinbestekoa delarik. A.S.ri dagokionean, errekaudazio eta jostio eredu autonomoaz baliatu, Estaduko besteekin elkarkidetzarako mekanismoak ziurtatuz.



## PENTSIO FONDOEI AURRE EGITEKO JARDUNBIDE PRAKTIKOA

Egoera honen aurrean eta E.N.A.M.en barne geure jarreratik, helburuak argi geratu behar dira eta ikuspegi bateratsua. Nazioarte ko kapitalaren borondateari makurtzeak, nazio eraikuntza proiektua galgatzen du eta bersorketaren oinarriak erasotzea daramagun borrokan aurrerapausua da.

Pentsio Fondoek kontra gure jarrera politikoak erabateko bazterketa izan behar du, aurretiaz aipatutakoagatik eta orain aipatuko ditugun beste arrazoi batzuegatik:

- Pentsio Fondoek egiturak hasierako dirutza handia behar du, jentio iraunkorra eta profesionala, kosteak oso garestituz, aseguru etxeak eta banken kontrola eta gestio gintza erraztuz. Kontutan izan beharrekoa da estatu kapitalistetan B.P.G.ren %20a eta 30a darabilkitela, lanik sortzen ez dutelarik. Bestalde, multinazional kapitalaren sartzeaz herria merke saltzea lortuz estatu mailan.
- E.E.E.aren okerrera litzateke Pentsio Fondoek tratamendu fiskalari dagokionean, 500.000 pztarainoko etekin %15a baino kitatzen ez delarik, gainontzekoa ezarria da.
- Ez da esaten erretiroa kobratzean %17a kitatzen dizutela zerbitzu zerga bidez.
- Aportazioen berreskurapen ezintasuna ez du aipatzen (soilik Pentsio Fondoetan).

Sindikatuaren jardunbidea planteiatzerakoan, kontutan hartu behar dugu bakarrik borrokatu behar izango dugula. UGTkoek Pentsio Prebisioren Zentrala RON INVESTMENTekin sortu du, Pentsio Plana bere bazkide eta ingurukoentzat, bere arazo bakarra plan hauek langileek negoziazio bidez onar ditzaten izango da eta PSOEn gobernarengandik hitzarmenak lortu Bankarekin dirua eskuratzearen, fondo hauek indartu nahian. CCOO ekinbide berean lerratua dago, V.G.ri elkarkidetzan funtzionarioagoaren sarrera ere eskatu duela, 89-1-leko datan. ELAk ere sektore publikoan Elkarkidetzan bultzatzen du eta sektore pribatuan erizpiderik aldatuko ez duenaren ustea dugu.

Argi geratu izan dena zera izan da: PSOEn "neoliberal politikaz, kapitalaren murruntzean eta erreformista sindikatuen laguntzaz Pentsio Fondoek ezarpen beharraz langilegoa konbentzitu nahian jotake ari da, bere makinaria guztia erabiliz.

Indibidualista eta konpetitibo gizarte eredu azkartzen duen proiektu bati erantzuten dio guzti honek, elkarkidetzan oinarritutako gizarterantzko urratsak baztertuz.

## Eta guzti honen kontra zer egiten dugu?

LAB.ek lantokietan eztabaida argigarriak piztu eta eragin beharko lituzke, A.S.ren kontrako jipoi honek langileak 'jasan beharrak eta korapilo guzti honen erroetara joaz. Praktikotasunari begira Pentsio Fondoak ezarriz joanen direla jakin behar dugu, fondoak ala "alprojen" arteko erabakian laketz bait da langileria; halere LABek langilegoaren barne ekinbide kritikoa eta pedagogikoa burutu beharko du, baina erabateko jarraera gogorrak ezin ezarriko ditugu, LABren bazkideak Pentsio Fondoan pribatu nahi lantokikoan ezin sartu izatearena adibidez.

Borroka ideologikoa lantokietan nola bideratu, LABek bideratu beharko du Fondoan eta defendatzaileen kontra eginez, baina eraginezko lanaren bitartez, konbentzitzen ahaleginduz, inoiz ez bortxatzen, gure kontra buelta bait daikeke.

Paraleloki egintza batzuk bultzatu beharko ditugu:

- PSOEren aldetik A.S.sistemaren aldaketa saioen kontra erne ibili behar dugu.
- Lantoki guztietan enpresarioei esijitu A.S.ren pagua (guri dagokiguna, horretarako pagatzen dugu, eta haiena gure soldataren zatia denez gero)
- Elkarte zergen paguaren hedatzea esijitu, kapital errentak, jabegoak, etab... eta orokorrean errentaren banaketa egokiagoa eman dadin.

Bere biziko inportantziadun gaia dugu, garapena eta mugikortasuna ahalik eta hurbilenetik segitu beharko duguna. Lortu ahal izango dugun informazioaren kaleratzea, langile aktiboek zein pasiboek, guri dagokigun afera da, eta beraz geurea egingo dugu. Gertakarien globaltasunetik erantzuteko, ikuspegi globala lortzearen, PSOE gobernu antilangilearen politika ekonomikoaren baitan kokatu behar dugu afera guzti hau, beharreko baldintza da.

L.A.B.ren B.N.

THE ALLIANCE BETWEEN THE STATE AND THE CHURCH

The alliance between the state and the church is a subject of great importance. It is one that has been discussed for centuries and has been the cause of much controversy. The state has always been interested in the church, and the church has always been interested in the state. This is because the church is a powerful institution, and the state is a powerful institution. They are both interested in the same things: the welfare of the people, the maintenance of order, and the promotion of the common good.

The alliance between the state and the church is a natural one. The church is a powerful institution, and the state is a powerful institution. They are both interested in the same things: the welfare of the people, the maintenance of order, and the promotion of the common good. The church has always been a part of the state, and the state has always been a part of the church. This is because the church is a powerful institution, and the state is a powerful institution.

The alliance between the state and the church is a natural one. The church is a powerful institution, and the state is a powerful institution. They are both interested in the same things: the welfare of the people, the maintenance of order, and the promotion of the common good. The church has always been a part of the state, and the state has always been a part of the church. This is because the church is a powerful institution, and the state is a powerful institution.

The alliance between the state and the church is a natural one. The church is a powerful institution, and the state is a powerful institution. They are both interested in the same things: the welfare of the people, the maintenance of order, and the promotion of the common good. The church has always been a part of the state, and the state has always been a part of the church. This is because the church is a powerful institution, and the state is a powerful institution.

The alliance between the state and the church is a natural one. The church is a powerful institution, and the state is a powerful institution. They are both interested in the same things: the welfare of the people, the maintenance of order, and the promotion of the common good. The church has always been a part of the state, and the state has always been a part of the church. This is because the church is a powerful institution, and the state is a powerful institution.

The alliance between the state and the church is a natural one. The church is a powerful institution, and the state is a powerful institution. They are both interested in the same things: the welfare of the people, the maintenance of order, and the promotion of the common good. The church has always been a part of the state, and the state has always been a part of the church. This is because the church is a powerful institution, and the state is a powerful institution.